

UROLA ERDIKO ZERBITZU MANKOMUNITATEA.*Iragarkia*

Arauzko informazio publikorako epea inolako erreklamazio eta oharpenik gabe igaro ondoren, behin-betiko bihurtuko da, 2011ko abenduaren 22an Urola Erdiko Mankomunitateko Zuzendaritza Batzordeak harturiko erabakia; hala nola, Azpeitiko Lapatx Zabortegean zerbitzu publikoak emateagatik eta jarduerak burutzeagatik 2012. urtean aplikatu behar diren tarifak onartzea, ondoren zehaztuko diren zerbitzuei buruzkoa.

Hiri hondakinen tratamendu zerbitzua, Azpeitiko «Lapatx» zabortegean:

— Hiri hondakinak, etxebizitza partikularretan, dendetan, bulegoetan eta zerbitzuetan sortutako hondakinak eta beren izaerarengatik edo konposaketarengatik lehen aipatutako toki edo jardueretan sortzen diren hondakinekin bateragarriak litezkeen bestelakoak, beti ere arriskutsu izendapena jasotzen ez duten hondakinak.

Tarifa aplikagarria: 62,88 €/tonako.

— Eraikuntzako hondakinak:

Lurrak: 6,52 €/tm.

Nahasketa eta obra hondakinak: 21,82 €/tm.

— Hondakin inerteen tratamendu zerbitzua, Azpeitiako «Lapatx» zabortegean:

Manipulazio maila txikia eskatzen dutenak(hareak): 16,35 €/tm.

Manipulazio maila handia eskatzen dutenak (nahasketak): 36,04 €/tm.

Hori guztia Gipuzkoako Toki-Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru-Arauaren 16.4 artikuluan agintzen duena betetzeko argitaratuko da, guztien jakinerako eta aipatutako aginduan aurreikusten diren gainontzeko ondorioetarako.

Aipatutako Foru-Arauaren 18.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, aipatutako erabakiaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute interesatuek Euskal Herriko Justizia Epaitegi Nagusiaren dagokion sailean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita eta bi hilabeteko epean.

Hala ere, eta aipaturiko aginduak ematen duen baimenaren arabera, hala nahi izanez gero, eta administrazioarekiko auzibideari ekin baino lehen, ekonomia-administraziozko erreklamazioa jarri ahal izango dute aipatutako interesatuek Gipuzkoako Foru-Auzitegi Ekonomiko-Administratiboan, esandako iragarkiak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoreneko lehen lanegunetik hasi eta hilabeteko epean.

Azkoitia, 2012ko martxoaren 27a.—Leire Etxaniz Manterola, Lehendakaria.

(32)

(3393)

MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS DEL UROLA MEDIO*Anuncio*

Transcurrido el plazo de información pública reglamentaria sin que se haya presentado reclamación ni objeción alguna, se han elevado a definitivo el acuerdo inicial adoptado por la Junta Rectora de la Mancomunidad Urola Erdia en sesión celebrada el día 22 de diciembre del 2011, sobre la Aprobación de las tarifas a aplicar el año 2012, como consecuencia de la prestación de servicios y realización de actividades en el vertedero «Lapatx» de Azpeitia, sobre los servicios que se detallan a continuación.

Servicio de tratamiento de residuos urbanos en el vertedero «Lapatx» de Azpeitia:

— Residuos urbanos generados en los domicilios particulares, comercios, oficinas y servicios, así como todos aquellos que no tengan la calificación de peligrosos y que por su naturaleza o composición puedan asimilarse a los producidos en los anteriores lugares o actividades.

Tarifa aplicable: 62,88 €/tm.

— Residuos de construcción:

Tierras: 6,52 €/tn.

Mezclas y residuos de obras: 21,82 €/tn.

— Servicio de tratamiento de residuos inertes en el vertedero «Lapatx» de Azpeitia:

Los que requieren menos manipulación (arenas): 16,35 €/tn

Los que requieren más manipulación (mezclas): 36,04 €/tn.

Todo ello se publica en cumplimiento de lo ordenado en el art. 16.4 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, para general conocimiento o demás efectos previstos en el expresado precepto.

De conformidad con lo dispuesto en el art. 18.1 de dicha Norma Foral, contra el presente acuerdo, los interesados podrán interponer recurso contencioso-administrativo ante la correspondiente Sala del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente hábil al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Ello no obstante, y como autoriza el precepto citado, los referidos interesados podrán optar por interponer, con carácter potestativo y previamente a la vía contencioso-administrativa, reclamación económico-administrativa ante el Tribunal Económico-Administrativo Foral de Gipuzkoa en el plazo de un mes, contado a partir del siguiente hábil al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de las expresadas publicaciones.

Azkoitia, a 27 de marzo de 2012.—La Presidenta, Leire Etxaniz Manterola.

(32)

(3393)